

## Antxiñako fotografíxia



## Oñatiko *Schola Cantorum* korua

**G**erra ostian eragin haundixa euki eben Oñatiko musika-munduan *Schola Cantorum Santa Zezilia* izeneko koru ederrak, Julian Zelaia Ugarte (1916-1970) San Migel parrokixako organista ezagunak sortu eta hogei taka urtian zuzendu ebenak. Hirurogeta hamar kantarietik gora zittuan abesbatza misto honek hainbat kontzertutan parte hartu eben gure herrixan nahiz herriko kanpora. Famauenetakua, biharbada, Donostiako zezen-plazan 1949ko agorraren 4an emundakua izan zan. Kontzertu haretan probintziako beste hamaika taldekin batera **Gipuzkoako Milla Ahotsen** koru ospetsuan kantau eben Maurizio de Tura italiarraren zuzendaritzapeian.

Oñatin bertan, jakinā, sarritan entzun ahal izan ziran Schola Cantorum haren emunaldixak. Bi gogoangarri aittatuko dittugu: 1950eko San Migel bezperan unibertsidadeko patixuan **Aitta Madinari egin xakon omenaldikua**; eta handik zazpi urtera parrokian Madina beraren **Arantzazu poema musicalaren estreiñaldikua**. Gaurko argazkian unibertsidadekua dakartzuegu. Beheko illaran orduko udaleko alkatia eta kontzejal gehixenak ikusi geinke, erdixan Patxi Madina omendutako musikagillia eta eskumako aldian Julian Zelaia koruaren zuzendarixa dirala. Egun haretan estreiñau zan, hain zuzen be, Madinaren **Oñati rapsodia politta**. Gure informatzaillia esker, kantari gehixenen izenak jakin ahal izan dittugu. Ezezagunak, ertzetakuak batez be, kontzertu haretan jo eben orkestako kidiak ei dira. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dira identifikatu dittugunak:

Goixeneko illaran: **Migel Biaín; Joxe Mari Mugartza; Luis Lete; Jabier Letamendi; Angel Egaña; Juanito Igartua; Juanito Korabarria; Sebastian Anduaga; Maximo Lazcanoiturburu; Juanito Arkauz; Bernardino Leturia; Manuel Korkostegi; Baxilio Biaín; Bittor Anduaga; Jexus Elortza; Jabier Urrestarazu; Benigno Anduaga;** X. X.; X. X.; eta X. X.

Laugarren illaran nesken atzetik: **Jexus Galdos; X. X.; Andres Agirre; Federiko Mendizabal; Jexus Letamendi; X. X.; Felix Ugartetxe; Pako Unzurrunzaga; Joxe Mari Ugarte; Juanito Anduaga; Juanito Aldanondo; Pedro Alzelai; Luziano Igartua; X. X.; X. X.; eta X. X.**

Hirugarren illaran: **X. X.; Pilar Galdos; Ines Ibarrondo; Maria Luisa Korkostegi; Maria Angeles Ugarte; Angelita Luzar; Eugeni Erostarbe; Carmen Guridi; Dorita Arregi; Mercedes Mugartza; Ana Mari Anduaga; Carmen Azkune; Milagros Bengoa; Rosario Zarraoa; Leonor Solana; Izaskun Galartza; Maritxu Guridi; Lolita Mugartza; Isabelita Guridi; Milagros Madinazkoitia; Felix Igartua;** eta X. X.

Bigarren illaran: **X. X.; X. X.; Migel Angel Arzuaga; X. X.; Arantxa Galartza; Begoña Anakabe; Maria Angeles Gorbea; Mari txu Zelaia; Carmen Gereta; Tere Arregi; Asun Arzuaga; Belen Korkostegi; Tere Mendizabal; Pilar Guridi; Ines Mendizabal; Angelita Korkostegi; Maria Luisa Lizaur; Maixabel Maiztegi; Karmentxu Arrazola; Kristina Guridi; Rosita Galdos; Rosi Aramendia; X. X.; Periko Oleaga;** eta X. X.

Beheko illaran jarrita: **X. X.; Juane Lizaur; Felix Ibarrondo** bere billoba Iñaziorekin; **Nazario Gordoa; Aitta Frantzisko Madina; Bizente Ugarte**, alkatia; **Antonio Mokoroa; Pepe Irizar; Angel Guridi; Nikolas Errasti; Juanito Ibarrondo; Julian Zelaia**, koruaren zuzendarixa, eta X. X., orkestiaren zuzendarixa biharbada. Illara honetakuak Oñatiko kontzejukuak ziran, Patxi Madina eta azkenengo bixak kenduta.

J. E.

Argazkia Carmen Azkuneren bittartez lortu dogu. Argibidiak, barriz, Karmenek berak ez ezik, Teretxu Urtaza, Mari Jose Elortza, Maixabel Maiztegi, Mila Ezeolaza eta Maixabel Biainek be osotu doskue.